

ZUZENBIDE PIRINIARRA ETA KOOPERATIBISMOA

Herriak, herrixkak eta auzuneak gure komunitatearen antolamenduaren oinarria izan dira beti eta gaur egun ere leku askotan jarraitzen dute izaten. Lurrak eta basoak kudeatzeko auzotarren batzarrak egiten ziren eta oraindik egiten dira leku batzutan.

Ama lurra, garrantzia handikoa da Euskal Herrian eta banatu ezina zen propietate pribatuetan. Lur komunalak aberastasunaren banaketaren berdintasuna zekarren. Demokrazia eta partehartze sozialaren erakusgarria dira.

Euskaldunok historian zehar kultura demokratikoa nahiko hedatuta izan dugu eta gaur arte heldu zaigu.

Piriniotan ipar eta hegoaldera, eta ekialdera ere Kataluniara arte, urteetan zehar ohiturak eta usadioak izan eta jarri zituzten herri eta auzo bakoitza antolatzeko, eta horiek lege bihurtu ziren. Erregeek eta jauntxoek ere sinatu egin behar zuten errespetatu egingo zituztela adieraziz. Hortik sortzen da legedi edo zuzenbide piriniarra. Behetik gora egindako legedia da zuzenbide erromanikoaren eta germanikoaren alderantziz jauntxoek eta nagusiek egindakoa baita eta ia Europa osoan gaur martxan dagoena.

1789ko Frantziar Iraultzarekin hasi zen lur komunalen eta batzarren beheakada iparraldean eta XIX. mendean Espāñako lur komunalen desamortizazioarekin eta udaletxeak sortuz batzarren funtzionamenduen aurka.

Zuzenbide piriniarra hiru zutabetan oinarritzen da:

1.- BATZARREAK edo KONTZEJUAK (*paroisses* iparraldean) guztiz hedatuta zeuden duela ehundaka urte, erromatarren etorrera aurretik ere.

2.- AUZOLANA altxor demokratiko bat da urtetan erabili izan dena gure auzo eta herriak hobetzeko. Oraindik ere auzo askotan egiten da Auzolana, ia Debagoiena osoan eta beste herri askotan.

Auzolanaren beste adierazgarri batzuk dira Hiletarako elkarteak (kofradiak) gure eskualdean eta herri batzutan mantentzen direnak, Gaztetxeen mugimendua eta Gazte Topaguneak, euskara apoiatzeko ekintzak (Korrika), jaietarako txosna eta jai batzordeak, atabar. Eta Euskal Herri osoan IKASTOLA mugimendua daukagu, herritik sortua eta demokratikoa, kooperatibak bezala antolatua eta hizkuntza mantentzen asko lagundu duena.

3.- LUR KOMUNALAK edo herri lur eta basoak. Ikerketa arkeologikoek azaltzen digutenez baziren hemen duela 3000 urte. Oraindik herri batzutan funtzionatzen dute batez ere Araban, Nafarroan eta Iparraldean.

Eta hiru zutabe horietatik datorkio KOOPERATIBAK ondo errotuta egotea Euskal Herrian.

Kooperatibismoak hiru ardatz horietatik edaten du zentzu zabalean: batzarrak dauka boterea, auzolana da guztiok ahal duguna aportatuz, eta komunala da, bazkide guztion propietatea da.

Benetako kooperatiba baten helburua ere horixe da, bazkideena da eta komunitate bati zerbitzua ematen dio, lana sortuz, baina ezin da saldu gure aberastasun propiorako, baizik eta hurrengoei pasatu behar diegu, jubilatzerakoan lantegia utziz.

Kooperatiba baten irabazietatik gutxienez %20a Erretserba Fondoan utzi behar da kooperatibaren funtzionamendurako eta inbertsiotarako, etorkizuna ziurtatzeko. Eta saldu egin nahi baldin badugu funtsa hori Kooperatiben Kontseilu Nagusira joan beharko da beste kooperatiba batzuk sortzeko eta laguntzeko. Hortik dator zuzeneko zerga gutxiago ordaintzearena (Sozietateenganako inpostuan). Beraz, kooperatiba komunitatearena da eta MONDRAGONen misioan ere honela lehenesten da "... gizartean aberastasuna sortzeko..."

Arizmendiarietak hasiera hasieratik 1969ko urtarrileko Cooperación aldizkarian (TULankide aldizkariaren aurrekoa) idazten du "... ugazaba gabe bizi nahi dugunok ..." horrekin esan nahiean gu guztiok izan behar dugula enepresariak eta lantegia eta gizartea autoeraketan oinarritu behar dugula. Beste hau ere horrekin lotuta dago "iñor ez iñoren otsein (morroi), ez jaun" 1976an hil orduko egun batzuk lehenago idatzia.

Eta erreferentzi mundiala daukagu Arrasaten hasi zen kooperatibismoaren funtzionamenduarekin. Mundu osoari erakusten ari gara posible dela enpresen gobernantza demokratikoki kudeatzea. MONDRAGONen ezaugarriak nagusia da LAN KOOPERATIBAK direla eta benetako INTERKOOPERAZIOAN ari direla.

Langileak enpresa batetik bestera pasatzea zerbitzuak (lanak) egiteko normala da. Zuzendariak pasatzea, diru mugimenduak egitea kooperatibek batak besteari dirua prestatuz, ezagutza elkar trukatzeko, proiektu handiak elkarren artean kudeatzea, dirua jartzea inbertsioak egin ahal izateko eta kooperatiba berriak sortzeko, elkartasunerako eta hezkuntza eta ikaskuntzarako fondoak jartzea, etabar. Guzti hau eguneroko lan elkartua da.

Enpresa handiak eta txikiak daude eta guztietan demokratikoki erabakitzen dira kooperatibaren arazo nagusiak.

Kooperatibismoaren balioak eta Printzipioak Euskal Herriaren senari lotuta daude: Pertsona erdian jartzen du eta lanak dauka boterea, kapitala bitarteko huts bat izanik, hezkuntza garrantzitsuena da pertsona garatzeko eta herriari zerbitzeko, kooperazioa, eraldaketa soziala, denon partehartzea hiru arloetan: gestioan, propietatean eta emaitzetan (irabazietan eta galeretan ere), propietatea bazkide guztiena da, demokratikoak dira (pertsona bat botu bat), gardentasuna eta zintzotasuna, etabar.

MONDRAGON kooperatiba taldea ekosistema integral bat da azpiegiturako lau zutabe garrantzitsu dauzkalako kooperatibak laguntzeko, garatzeko eta sinnergiak lortzeko: 1- hezkuntza zentruak, Mondragon Unibertsitatea barne, 2- soporte finantziarioa, Laboral Kutxa, 3- laguntza sozialetarako Lagun Aro, eta 4- etorkizuna ziurtatzen lagunduko dituzten Ikerketa eta Garapen zentruak, Ikerlan adibide nagusia jarrita.

Kooperatibismoa zuzenbide piriniarraren aplikazio bat da ekonomiaren arloan eta baita bizitzeko eran.

Mikel Lezamiz
Arizmendiarieta Lagunak Elkartea ALE